

hizkuntza normalizazioa

merkataritzan eta zerbitzugintzan

a e i o u

martxoaren 16an eta 17an, OÑATIN

Euskararen Erabilera Arautzeko Oinarrizko Legea onartu zenetik hainbat esparrutara (administrazioa, hezkuntza, eta komunikabideetan, bereziki) zabaldu da euskararen erabilera, herri erakundeek eta gizarte ekimenak egindako lanari esker.

Gizarte bizitzako beste hainbat esparrutan ere aurrera pausoak egin ditu euskarak, berariazko lege babesik izan gabe. Horrela, gero eta gehiago dira beren jarduera –bere osoan edo zati batean, bederen– euskaraz egiten duten kultura eta kirol elkarteak, dendak, zerbitzu enpresak eta mota guztietako entitateak. Era berean, gero eta gehiago dira euskara erabiltzen duten herritarrak lanean, erosketak egitean, kutxan edo bankuan egiten dituzten gestioetan eta mota guztietako entitateekin dituzten harremanetan.

Bestalde, aspaldikoak dira gizarte bizitzan euskararen erabilera areagotzeko hainbat udalek sustatutako egitasmoak. Debagoieneko herri gehienetan abian dauden euskararen hitzarmenak, adibidez, orain dela 10-14 urte jarri ziren abian. Merkataritza, zerbitzugintza eta mota guztietako entitateen jardueraren hizkuntza normalizazioa dute helburu hitzarmenok.

Normalizazio bide horretatik jarraituz, 2003ko abenduan Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Legea onartu zuen Eusko Legebiltzarrak. Legeak hizkuntza eskubideak aintzat hartzen ditu, eta, horrenbestez, euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea aitortu eta euskara –progresibotasun printzipioari berariaz jarraituz- sustatzeko asmoa ere agertzen du. Gainera, administrazio publikoen eskumenak zehazten ditu, toki administrazioaren ardurak handituz eta instituzioen arteko koordinazioa bultzatuz.

Azkenik, Euskararen Aholku Batzordeak sustatu eta dagoeneko hainbat udalek onartua duten Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak ere auzogintza eta zerbitzugintza euskalduntzeko ekimenak proposatzen ditu.

Gauzak horrela, Debagoieneko Mankomunitateak eta udalek, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailordetzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Euskara Zuzendaritzarekin batera eta elkarlanean, jardunaldi hauek antolatu dituzte, auzogintza eta zerbitzugintza euskalduntzeko udalen eginkizunak aztertzeko, betiere Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Legeak ezarritako esparrutik.

matrikula

**Plaza kopuru mugatua dago.
Matrikula eta ordainketa egiteko epea:
otsailaren 21etik martxoaren 4ra arte.**

**Datuak behar bezala beteta, izena
emateko orria eta ordainagiria faxez
bialdu (943770854). Edota,
[www. debagoiena.net](http://www.debagoiena.net) webgunean eman
daiteke izena.**

**Matrikularen prezioa, jatorduak barne:
100 €
Kontu zenbakia: Kutxa,
2101 0055 65 0010596765
Harremanetarako telefonoa: 639214068,
Debagoieneko Mankomunitatea**



9:00 - 9:30	Agiriak jasotzea	
9:30 - 10:00	Hasiera ekitaldia	
10:00 - 10:45	Administrazioaren interbentzio linguistikoa esparru sozioekonomikoan	Joan Ramon Solé, Kataluniako Generalitateko teknikaria
10:45 - 11:30	Euskararen ezagutza eta erabilera EAEko denda, taberna eta jetetxeetan	Jon Aizpurua, Eusko Jaurlaritzako teknikaria
11:30 - 12:00	Atsedenaldia	
12:00 - 12:45	Hitzarmengintza: liburuaren aurkezpena eta "Gurean bai merkataritza"	Iñaki Akizu, Debagoieneko Udalak - Ainara Betegi, Elgoibarko Izarra
12:45 - 13:30	Kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak kontsumitzaileen ikuspegitik	Begoña Larrañaga, Eroski
13:30 - 15:00	Bazkaria	
15:00 - 15:30	Euskara planak merkataritza-enpresa handietan: Eroski	Ainara Llona, Eroskiko giza baliabideen sailekoa
15:30 - 16:00	Hitz egin dezagun komertzioen hizkuntzaz	Juanjo Allur, Siadeco
16:00 - 16:30	Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak merkatarien elkarteen ikuspegitik	Ana Aranberri, Merkataritza federazioa



9:15 - 10:00	Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak	Rodrigo García, Eusko Jaurlaritzako kontsumo sailburuordea
10:00 - 10:45	Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak eta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia	Joxi Arakama, Getxoko Udaleko teknikaria
10:45 - 11:30	EAEko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuaren aplikazio juridikoa	Iñaki Agirreazkuenaga
11:30 - 12:00	Atsedenaldia	
12:00 - 12:30	Bai Euskarari Ziurtagiria	Rober Gutierrez, Kontseilua
12:30 - 13:00	Euskara kalitate planen osagai: Iturgi	Ibon Usarralde, Emun
13:00 - 13:30	Igorren merkataritzan euskaraz: Beinke!	Olatz Estensoro, Elhuyar Aholkularitza
13:30 - 15:00	Bazkaria	
15:00 - 16:30	Etorkinak euskararen normalizazioaren eragozle edo eragile?	Julen Arexolaleiba eta Amelia Barquin, HUHEZI



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA



ANTZUOLAKO
UDALA



ELGETAKO
UDALA



BERGARAKO
UDALA



OÑATIko
UDALA



ARRASATEKO
UDALA



ARETXABALETAKO
UDALA



eskoriatzako
udala



LEINTZ GATZAGAKO
UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA